

Brasilgo kooperatibismoaren garapenerako oinarriak. Begiratu kritikoa Euskadiko legedi eta errealitate instituzional kooperatibotik

Ainhoa Larrañaga Elorza
Mondragon Unibertsitateko irakaslea

Bi izan dira Arrasateko Kooperatiba Esperientziak izan duen arrakastaren arrazoiak: 4/93 Euskadiko Kooperatiben Legea, bata, eta kooperatiben inguruan eman den egituratze instituzionala, bestea. Brasilgo errealitate kooperatiboan, kontrara gertatu da: Kooperatiben Legea eta ordezkaritza kooperatibo ofiziala duen egitura izan dira eta dira kooperatibek aurrera egiteko duten eragozpen nagusia. Bi errealitateak alderatzea izan da ikerketa honen jomuga, eta, egindako ekarpenetatik, Brasilgo mugimendu kooperatiboa bultzatzea.

GAKO-HITZAK: Kooperatiben Legea · Ordezkaritza kooperatibo ofiziala · Brasilgo kooperatibismoa · OCB.

Basis for the development of cooperativism in Brazil. Critical look from the Basque legislation and the reality of cooperative institutions

There were two reasons for the success of the Mondragon Cooperative Experience: first, the Law 4/1993 on Cooperative Societies of the Basque Country; second, institutional structuring undergone by cooperative societies. But in Brazil the cooperative reality is quite the opposite; the Cooperative Law and the organization that holds the official representation have been the main impediment for the cooperative development. The aim of this research is to compare both realities, in order to foster the cooperative movement in Brazil.

KEY WORDS: The Law of cooperatives · Official cooperative representation · Cooperativism in Brazil · OCB.

Jasotze-data: 2012-11-21. *Onartze-data:* 2013-01-17.

1. Sarrera

Kooperatibismoa sendotzeko oinarrizko zutabe bat da Kooperatiben Legea. Ikerketa honen helburua da, Brasilgo kooperatibismoa indartzeko helburuz, 4/1993 Euskadiko Kooperatiben Legetik eta 1/2000 Kooperatiben Legearen aldaketa arautzen duen legetik ekarpenak egitea 5.764/71 Brasilgo Lege Kooperatiboari. Brasilgo kooperatiben eraketa eta funtzionamendua arintzea eta Brasilgo mugimendu kooperatiboaren ordezkari-tza zabaltzea dira lege brasildarrari egiten zaizkion ekarpen esanguratsuenak. Brasilen mugimendu kooperatiboaren ordezkari-tza ofiziala erakunde bakarraren esku dago eta errealitate kooperatiboa osatzen duten gainerako elkartei ere ordezkari-tzarako aukera eskaini behar zaie, ikerketa honetan frogatuko dugun moduan.

Quadros-en diktadura-garaitik dator (1961) Brasilen egun indarrean den legea eta hiru urte geroago (1964) sortua da OCB (Organizacao das Cooperativas Brasileiras) ere, kooperatibismoaren ordezkari-tza ofiziala daraman erakundea. Legeak eta aipatu dugun egiturak ez dute lagundu kooperatibismoa garatzen (Gediel, 2005). Lan honetan ikusiko dugunez, legeak oso baldintza zurrinak eta zorrotzak ezartzen ditu kooperatibak eratzeko eta garatzeko Brasilen. OCBk bete duen eta egun oraindik betetzen duen rolaren eraginez, kooperatiba batzuk oso erraz garatu dira, eta beste batzuei, aldiz, irizpide erabat arbitrarioetan oinarrituz, ez zaie inolako aukerarik eskaini eratzeko eta eratuta dauden beste zenbaiti eragozpenak jarri zaizkie garatzeko.

Euskal Autonomia Erkidegoan (EAE), aldiz, legeak zein erakundeek erraztu eta lagundu egin dute kooperatibak eratzten eta garatzen. Kooperatiben eraketarako eskatzen diren gutxieneko baldintzak errazak dira betetzen eta Erregistroak ere lagundu egiten du tramite administratiboak betetzen. Aukera bat litzake Brasilgo sistema kooperatiboa EAEko sistemaren ezaugarrietara gerturatzea.

2. Ikerlanaren metodologia

Alderaketa juridikoa izan da ikerlana egiteko erabili dugun metodologia. Esana dugu jada: alderatu ditugu 4/1993 Euskadiko Kooperatiben Legea eta 1/2000 Kooperatiben Legearen aldaketa eta 5.764/71 Brasilgo Kooperatiben Legea. Alderatu ditugu, halaber, Brasilgo ordezkari-tza kooperatibo ofiziala daukan egitura pribatua, (OCB) eta Euskadiko kooperatiben ordezkari-tza duten eta horien zerbitzura dauden erakundeak.

Legeen alderaketa ez da egin artikuluz artikuluz; kooperatiben eraketarako eta garapenerako funtsezkoak diren elementuak zein diren aletu eta horiek konparatu dira. Azterketa juridiko konparatua osatu dugu esparru kooperatibo brasildarreko protagonistei eginiko elkarrizketa sakonekin; hala, sozietate forma kooperatiboa duten erakundeetako ordezkari-ekin; nola, oraindik kooperatiba-izaera ez izan arren, euren balio eta izaerarekin koherenteena den sozietate-izaera kooperatiboa duten erakundeetako protagonistekin. Elkarrizketak Brasilen egin ziren. Guztira hiru bidaia izan ziren: lehena, tesirako ideia hartzeko, bigarrena tesiaren alderdi enpirikoko elkarrizketak egiteko, eta, azkena, egindakoaren kontrastea burutzeko. Behin tesia defendatu ostean, azken bidaia izan zen tesiaren ondorioak aurkezteko.

Euskal legearen honako atal hauek izan dira aztertu ditugunak:

1. Kooperatiben eraketarako beharrezko diren gutxieneko baldintzak: batetik, 1/2000 Legearen 4. artikulua, gutxieneko kapital soziala arautzen duena, eta 4/1993 Legearen 3. artikulua, gutxieneko bazkide kopurua arautzen duena.
2. Kooperatiben Erregistroa, 4/93 Legearen I Tituluko, III Kapituluaren, 15. artikulua, 16. artikulua, 17. artikulua eta 18. artikulua.
3. Ekintza kooperatiboa, guk ez daukagu figura hau beraz ez dago artikulurik.
4. Bazkide motak, 4/93 Legearen 19. artikulua, 21. artikulua eta 30. artikulua.
5. Kooperatiba motak: bitariko kooperatibak, 4/93 Legearen 136. artikulua.
6. Bazkideen lan-erregimena: 4/93 Legearen 101. artikulua.
7. Kontabilitatea eta erregimen fiskala: arau foral desberdinetan arautua.
8. Betebehar administratiboak: Kooperatiben Erregistroa arautzen duen araudian.
9. Kooperatiba-mugimenduaren ordezkari ofiziala: 4/93 Legearen 144. artikulua.
10. Formazio kooperatiborako subentzioak: 4/93 Legetik kanpoko araudia.

Honakoak izan dira elkarriketatu diren erakunde eta protagonistak:

- Organizacao das Cooperativas Brasileiras (OCB) erakundeko Guilherme Krueguer aholkulari juridikoa eta Amerigo Garcia superintendente juridikoa.
- Secretaria de Economía Solidaria (SENAES) erakundeko Paul Singer eta Favio Sanchez zuzendariak.
- Partido de los Trabajadores (PT) alderdiko Adao Preto senataria.
- Central de Cooperativas e Empreendimentos Solidários (UNISOL) erakundeko Marcelo Mauad aholkulari juridikoa.
- ANTEAG: Reitor Gomes aholkulari juridikoa
- Movimento dos Trabalhadores Sem Terra (MST) mugimenduko Pedro Ivan Cristhofoli zuzendaritzako kidea.
- Universidade Federal do Paraná (UFPR) unibertsitateko kooperatibismo-guneko ikasleen ordezkariak.
- Banco Desenvolvimento do Extremo Sul (BRDE) bankuko Carlos Mares zuzendaria.
- Universidad Federal do Paraíbako (UFDP) José Brendan soziologoa.
- Mondragón Corporación Cooperativako (MCC) erakundeko Ibrahin Joao Elias delegatua.

Aintzat hartu dira goian aipatutako protagonista eta eragile nagusien iritziak, baina gure proposamenak egiteko orduan ez gara haien esanetara lotu.

Legeko atalak aztertu ondoren, egitura instituzional kooperatiboak alderatu ditugu: OCBk betetzen dituen funtzioak eta dauzkan eskuduntzak, hemengo kooperatiben ordezkarietarako dauden erakundeen funtzio eta eskuduntzekin. Lanki-k (2008) dioen moduan, euskal egitura kooperatiboak erreferente izan dira kooperatibismoaren garapenean. Ikerketa honen ondorio nagusietako bat da Brasilgo egiturak jaso behar duela ekarpenik EAETik, eta atalez atal egingo ditugu proposamenak.

2. Lege-alderaketa

Atal honetan honakoak aztertu eta alderatuko ditugu: bi legeek eskatzen dituzten baldintzak kooperatibak sortzeko, batetik, eta bestetik, baita alderatuko ditugu, gainerako baldintza edo eskakizunak ere.

2.1. Kooperatiben eraketarako gutxieneko baldintzak

Kooperatibak eratzeko beharrezko diren gutxieneko baldintzen artean bi izango dira aztertuko ditugunak: gutxieneko kapital soziala eta gutxieneko bazkide kopurua.

Gutxieneko kapital soziala

Kooperatibaren eraketarako gutxieneko kapital soziala eskatzeak daukan helburua edo izateko arrazoia zera da, jarduera ekonomikoa oinarri ekonomiko minimo batekin hastea. Beharrezkoa da jarduera ekonomikoa gutxieneko berme batekin hastea, edo jarduerari gutxieneko oinarri batekin ekitea. Ez da beharrezkoa kopurua altua izatea. Euskal Kooperatiben Legea pasatu da 6.000 euro eskatetik 3.000 euro eskatzera eta beharpen honen arrazoia izan da kooperatiben eraketa erraztea eta arintzea.

4/93 Legeak eskatzen du gutxieneko kapital soziala, ekimenak gutxieneko segurtasun eta bermea eskaini diezaien kooperatibarekin kontratatzen duten hirugarrenei.

Brasilgo legediak aukera eskaintzen die kooperatibei kapital sozialik gabe sortzeko. Bi dira Brasilen kapital sozialari erreferentzia egiten dioten legeak: batetik, 5.764/71 Kooperatiben Legea, eta, bestetik, 2002ko urtarrilaren 11ko Kode Zibila. Kode Zibilak 1.094. artikuluan kooperatiben ezaugarrien artean aipatzen du: «Kooperatiben kapital sozialaren dispensa edo aldakortasuna (variabilidad ou dispensa do capital social)». Posible da, beraz, kapital sozialik gabe kooperatibak sortzea Brasilen.

Altuagoa da arrisku handiagoko jardueretan eskatzen den kapitala. Espainiar¹ legediak 60.000 euroko gutxieneko kapitala eskatzen du Sozietate Anonimoen eraketarako eta kooperatibak parekatzen ditu Erantzukizun Mugatuko Sozietateekin. Hauen eraketarako legeak eskatzen du 3.000 euroko kapitala. Koopera-

1. 1/2010 EDL, kapital-sozietateei buruzkoa.

tiben kasuan, kapital sozialak, jarduera ekonomikorako berme izateaz gain, beste oinarrizko funtzio bat ere betetzen du. Bazkideak, ekarpena egiten duen unean, sendotzen ditu bere kooperatibarekiko identifikazioa, jabetza-sentimendua eta kudeaketaren gaineko interesa. Kapitalak bazkideak kooperatiban duen inplikazioa areagotzea lortzen duela azpimarra genezake, beraz.

Aurrekoarekin erlazio estuan, esan genezake kapitalak laguntzen duela kooperatibak bere buruarekin duen konfiantza indartzen eta sendotzen. Kapitalak segurtasuna ematen du eta jardueraren bideragarritasunari laguntzen dio. Bazkideek badakite ondare bat dagoela eta horrek ematen die konfiantza jarduera erantzukizunez burutu dezaten.

Bi legeen arteko aldea nabarmena da, eta, ondoren, protagonisten iritzia azalduko dugu.

OCBk beharrezko ikusten du gutxieneko kapitala eskatzea, beraien bideragarritasuna bermatzeko. Haien esanetan, ekonomia solidarioaren esparruan sortzen diren kooperatibek ez dute jarraipenik izaten, eratzen direlako kapital sozialik gabe. Erakundeko abokatu den Guilherme Krueger aholkulariak (2007) bereizten ditu baliabide ekonomiko asko eskatzen duten ekimenak eta gutxiago eskatzen dutenak. Haren esanetan, lehenek kapital soziala beharrezko dute, bestela erantzukizuna bazkideen gain geratzen da.

OCBko ordezkarien iritziarekin kontrajarrita dago ekonomia solidarioko kideena; hauek ez dira kapital soziala eskatzearen aldekoak. Oro har, gehienek uste dute kapital soziala eskatzea ez dela beharrezkoa. Argudio nagusia ekimen hauek duten kaudimen-gabezia da; kaudimen-gabeziak ekimenak zorpetuta hastea eragiten du. Brasilen ez dago interes baxuko maileguak eskaintzen dituen bankurik, ez eta ekimen mota hauentzat onargarriak izan daitezkeen ordainketa moduak eskaintzen dituenik ere. Kartoi-biltzaileena da mota honetako ekimenen adibide bat. Ekimen hauetako kideen txirotasun-maila oso altua da eta ez dute kapitala ordaintzeko inolako aukerarik. Arrazoi horretan oinarritzen dute kapital sozialik ez eskatzea.

MCCko delegatuak dio ez litzakeela egon behar legezko derrigortasunik, baina, hala ere, onartzen du kapitalik gabe sortutako kooperatibek nekez egiten dutela aurrera. UFPRko ikasleek diote kapital sozialak betetzen duela hirugarrenen aurrean berme-funtzioa, baina derrigortasuna kaltegarria dela deritzote. Kooperatibaren azken helburua da langilea bere buruaren jabe izatea eta inorekiko mende-kotasunik ez izatea. Beraz, testuinguru horretan, kapitala derrigor eskatzeak jarduera kooperatiboa mendekotasun-egoeran hastea eragin dezake, eta hori kooperatibaren oinarrizko helburuaren aurka jotzea da. Azkenik, SENAESeko idazkariaren iritziz, ez litzateke nahi eta nahiezkoa izan behar kapital sozialaren eskaera.

Nahiz eta elkarrizketatutako ordezkari gehienek iritzia kontrakoa izan, gu kapital sozial minimoa eskatzearen aldekoak gara. Nekez egingo du ekimen ekonomikoak aurrera gutxieneko oinarri ekonomikorik gabe sortzen bada. Kapitalak bazkideen konpromisoa sendotu dezake eta enpresarekin kontratatzen duten hirugarrenen interesak babestuago daude horrela. Proposamena da

gutxieneko kapital soziala eskatzea, betiere, politika publiko eta finantzarioekin lagunduz behar gehien dutenei.

Gutxieneko bazkide kopurua

Kooperatiba bat eratzeko eskatzen den bigarren baldintza da gutxieneko bazkide kopurua. EAEn gutxieneko bazkide kopurua bost izatetik hiru izatera pasatu zen (1993. urtean.) Kooperatiba txikien eraketarako, are gehiago murriztu zen, eta gutxieneko bi bazkide eskatzera pasatu zen (2000. urtean.) Brasilgo Kooperatiben Legeak hogeitaz bazkide eskatzen ditu eta kopuru hain handia izateak eragotzi eta zaildu egiten du kooperatibak eratzea.

UNISOLEko aholkulari juridikoaren aburuz, egokia litzateke zazpi bazkide eskatzea. Bat dator MCCko delegatua ere kopuruan, nahiz eta hark dioenez, kopuru txikiago bat ere izan daitekeen. ANTEAGeko kideek, berriz, ESaren (ekonomia solidarioa) barnean kokatzen diren arren, diote bazkide asko lortzeko aukerarik ez badago, hobe dela kooperatiba bat ez sortzea, baizik eta enpresa txiki bat. Beraz, ESkoak dagoen bazkide kopurua mantentzearen aldekoak dira. ESkoekin izandako elkarrizketetan nabarmen azaldu da pobrezia-egoera larrienean bizi den jendeak gehiegizkotzat daukala hogeitaz bazkide lortzea.

Hogeitaz bazkide eskatzea gehiegizkoa dela ikusita, haiek aipatzen zuten kopurua zazpikoa izanik eta EAeko legeak une honetan bazkide kopurua hirura, eta kasu batzuetan baita bira ere jaitsi duela ikusirik, EAeko egoera ikusiz eta Brasilen hogeitaz bazkide bilatzeko dauden zailtasunak kontuan hartuz eta kooperatiben garapen eta sustapenari begira gure proposamena bazkide kopurua jaitzea da eta zazpi edo bosteko kopuruan lagatzea.

Kooperatibak eratzeko gutxieneko baldintzak aztertuta, hemendik aurrera aurrez aipatutako 2.etik 10.enerako baldintza kooperatiboak alderatuko dira banan-banan.

2.2. Kooperatiben Erregistroa

EAEn kooperatiben eraketa eta funtzionamenduaren kontrolean eskuduntza daukan organoa Kooperatiben Erregistroa da eta kooperatibismoaren garapenerako beste puntu estrategiko bat da. Administrazio Publikoaren menpe dagoen eta neutraltasun- eta objektibotasun-printzipioen menpe jokatzen duen izaera publikoko organoa da.

Bi lekutan egin daiteke Brasilen kooperatiben erregistroa, eta, behar den moduan araututa ez dagoenez, egoera nahasia sortzen du. Badira kooperatiben erregistroa *Cartorio*tan egiten dutenak eta badira Junta Komertzialetan egiten dutenak ere. *Cartorio*ek irabazi-asmorik gabeko entitateen erregistroa egiteko eskuduntza dute, tramiteak errazten dituzte eta merkeagoak dira. Junta Komertzialek, aldiz, batez ere merkataritza-sozietateak erregistratzeko eskuduntza dute eta tramiteak konplexuagoak dira; erregistroak deszentralizatuago daude (ez dira hain eskuragarriak), eta gastuak altuagoak dira.

Ez da komeni kooperatiben erregistroa Junta Komertzialetan eramatea. Junta Komertzialek enpresa-izaera dute eta horrek eragotzi egiten du kooperatiben bereizgarriak ulertzea. Berezitasun horiek kontuan hartu gabe, ezinezkoa da kooperatiben erregistroa erraztea. Gainera, OCBk aitortzen du bere gertuko edo intereseko jendea daukala lanean Junta Komertzialetan. Pertsona horiek ahalbidetzen dute berez neutralak beharko luketen erakundeok OCBren interesen aldeko irizpideekin funtzionatzea. Kooperatibak derrigortuta daude aldez aurretik OCBn erregistroa egitera, eta, *de facto*, irizpide objektiboetan oinarrituta barik, entitate pribatu horrek lehenetsitako irizpideekin erabakitzen du enpresa bat kooperatiba bihurtuko denetz.

Cartorioak ere gure ustez ez dira egokienak kooperatiben erregistroa egiteko, kooperatibak ez direlako nahastu behar irabazi-asmorik gabeko erakundeekin. Tramiteak arinagoak eta merkeagoak izateak ez du esan nahi egokiagoak direnik. ESTik defendatzen dute kooperatiben erregistroa *cartorio*tan egin beharko litzatekeela. Baina zuzenago da izaera publikoa duen kooperatiben erregistro espezifiko bat izatea. Administrazio Publikoaren menpe egongo litzateke, objektiboz funtzionatuko luke eta, ondorioz, kooperatiben zerbitzura lan egingo duen erregistro bat izatea komeni da.

Amaitzeko, azpimarratzekoa da SENAESek puntu honekiko duen iritzia. Erakunde honen ustez, kooperatiben erregistroak bere gain hartu beharko lituzke erregistro-, katastro- eta monitorizazio-funtzioak.

2.3. Ekintza kooperatiboa, kooperatiba-jardueraren ardatza

Krueger-ek (2007) dioten moduan, Brasilen eta Latinoamerikan egoera oso bestelakoa da. Herrialde horietako legedietan ekintza kooperatiboa da kooperatiba baten oinarria eta elementu zentrala. Ekintza kooperatiboak baldintzatzen du bai kontabilitatea bai eta erregimen fiskala ere. Eta ekintza kooperatiboa da,aldi berean, kooperatiben tratu bereizgarria justifikatzen duen elementua. Kooperatiba dago bazkidearen zerbitzura eta horregatik, bazkidea kooperatibarekin lotzen duen ekintza gertatzen denean soilik izango litzateke koherentea funtzionamendu kooperatiboarekin.

Pastorino-k (1993: 27) definitzen ditu ekintza kooperatiboak. Autore honen esanetan, ekintza kooperatiboak dira kooperatibek beren artean burutzen dituzten ekintzak eta kooperatibek bazkideekin burutzen dituztenak. Erregimen orokorrean fiskalki zamaten diren ekintzak dira kooperatibek hirugarrenekin burutzen dituztenak; irabazi-asmoz burutzen diren ekintzak. EAEko legediak normaltasunez onartzen du, enplegua sortzeko eta enpresa bideragarriak izateko kooperatibak merkatuan aritzea. Azken buruan, merkatuan gauzatzen da bazkideen beharrak asetzeko jarduera.

Ez gure legedian eta ez Europako legedian, oro har, ez da «ekintza kooperatibo» izeneko figura juridikoa existitzen. EAEko kooperatibek burutzen dituzten jardueren artean, ez dira bereizten, jarduera kooperatiboak direnak eta ez direnak.

Erakunde desberdinetako ordezkariak egindako elkarrizketetatik, aldiz, ondoriozta daiteke, galdu nahi ez den figura juridiko bat dela Brasilen ekintza kooperatiboa, mantendu beharreko figura, beraz.

Emandako iritziak errespetatuz, gure proposamena da figura mantendu behar dela baina, malgutu beharra dago. Beste izaera bat emanez, aukera gehiagorekin jokatzuz, kooperatiben jarduera zurruntzea ekidin beharko litzateke.

2.4. Bazkide mota berriak sartzea

Brasilgo legediak ez ditu bazkide mota desberdinak aurreikusten. Hala ere, *de facto* figura desberdinak erabiltzen dira. Pauso garrantzitsua izan daiteke bazkide mota desberdinak sartzea kooperatiben legedian, kooperatibismoa sendotzeko. Horrela lortuko litzake interkooperazioa sustatzea eta indartzea.

Brasilen egin genituen elkarrizketa guztietatik ondoriozta dezakegu, ez dagoela konfiantzarik bazkide mota desberdinak sartzeko legean. Mendekotasun handia bizi izan du Brasilgo kooperatiba-esperientziak. Brasilen kooperatibetan ezin izan da autogestioa praktikatu eta autogestio-prozesuak sustatu beharrean langileak ugazabarekin mendekotasun-harremanak izan ditu. Fenomeno horretatik dator, beraz, kanpoko elementuak sartzek eragiten duen beldurra; nolabait, kanpoko eragileek boterea eskuratzeko dagoen arriskuaren beldur direlako.

Bi bazkide mota sartzea proposatzen dugu: bazkide erabiltzailea eta bazkide laguntzailea, hain zuzen ere. Bezeroa leialtzea lortzeko lehena, eta kooperatiben arteko lankidetzak bultzatu eta sendotzeko bigarrena. Bazkide laguntzailearen figura sartuz, proiektua lagundu nahi duten kanpoko eragileei sarbidea eskaintzeko aukera dago. Lankidetzak izan daiteke ekonomikoa edo beste izaera batekoa. Bazkide erabiltzailearen figura sartuz, bezeroen leialtasuna lortzeko aukera zabaltzen da; bezeroa protagonista izanik, bere mantentzea bermatuz.

2.5. Kooperatiba motak

Ez dago alde handirik legedi bien artean, kooperatiba motei dagokionez. Hala ere, bitariko kooperatiba da Brasilgo legediak jasotzen ez duen kooperatiba mota bat.

Bitariko kooperatiban kapitalaren % 49 akzioetan banatuta egon daiteke eta gainerako % 51 erregimen kooperatiboan. Bitariko kooperatiba legedi brasildarrak jasotzea lagungarri izan daiteke kooperatibismoa sustatzeko eta kooperatibek izan ditzaketen hutsuneak betetzeko. Nahiz eta figura horrek kritika asko jaso zituen EAEn, figura jasotzea proposatzen dugu, aukera eskaintzen duelako botoa eta erabaki-ahalmena haztatzeko.

2.6. Kooperatiben lan-erregimena

Produktzio-kooperatibak Brasilen lan-bazkideen esku egon izan dira. Lan-bazkideak autonomoak dira eta karga sozial eta erantzukizunetatik libre daude. Obligazio horiek exentzioa izateak figura kooperatiboaren erabilera okerra eragin du. Mauad-en (2001: 80) esanetan, obligazio sozialei ihes egiteko estalki modura jokatu duen sozietate-figura izan da. Erabilera txar hori izan da Brasilen kooperatiben irudia kaltetu duena. Bai lan-bazkideek bai soldatapeko langileek baldintza ez-duinetan eskaintzen dute euren lana eta *makilak* izan dira, nagusiki.

Mauadek dio, kooperatibak eskulan merkea ahalbidetzeko tresna juridikoak izan direla Brasilen. Bete duten funtzio horrek eragin negatiboa izan du kooperatibismoaren garapenean eta ospean. Epe motzeko errentagarritasuna bilatu eta lehenetsi da eta horrek kooperatibismoaren filosofia eta balioen aurkako praktikak burutzea ekarri du. EAEn bazkideen lan-erregimenak badu heldutasun juridiko nahikoa eta arrazoi horregatik proposatzen dugu gure ereduari jarraitzea, baita Brasilen ere. Lan-erregimen egoki baterako oinarriak ezarri beharko genituzke, baina betiere kooperatibaren autonomia zainduz. EAEn Estatutu Sozialak eta Barne Araudia izan dira bazkideen lan-erregimena eratu dutenak. Araubide horren oinarriak Batzar Orokorrean ezartzen dira eta ondoren Kontseilu Errektorean garatu.

2.7. Kooperatiben erregimen fiskala eta kontabilitate-erregimena

EAEn kooperatibek erregimen fiskal berezia dute, eta berezitasun hori sozietate-izaeratik dator. EAEko kasuan, beraz, kooperatiba-izaerak dakar erregimen fiskal berezia. Brasilen, aldiz, ekintza kooperatiboa da berezitasuna ezartzen diona kooperatibari. Ekintza burutzen denean tratu berezitua dago, eta, ekintzarik ez dagoenean, berriz, kooperatibei gainerako enpresen tratamendu komuna aplikatzen zaie.

Brasilgo kooperatiben erregimen fiskala ez dugu zehatz-mehatz aztertu, baina aztertu, dugunetik eta elkarrizketetatik ondorioztatuta, argi geratu da tramiteak konplikatuak direla. Kooperatibek zailtasun handiak dituzte arau fiskalak eta kontabilitate-arauak betetzeko. Gure proposamena, beraz, tramite horiek sinplifikatzea da, kooperatibek legea bete dezaten eta euren egoera erregularizatua izan dezaten.

2.8. Tramite administratiboak

EAEn kooperatibek bete behar dituzte Kooperatiben Erregistroko legeak ezarritako arauak. Erregistro hori Administrazio Publikoko parte da eta objektibotasun-eta neutraltasun-printzipioen pean jarduten du. Gure esperientzian oinarrituta, hauxe baieztatu dezakegu: Erregistroak lagundu egiten die kooperatibei tramiteak bete-tzeko orduan, eta, horretaz gain, aholkuak emanez, bideratu egiten ditu.

Brasilgo kasuan kooperatibek Junta Komertzialetara jotzen dute eta OCBk eragina duenez horietan, zaildu eta eragotzi egiten du kooperatiben eratzea. Egin ditugun elkarrizketek agerian utzi dute OCBk baliatu egiten duela urteetan pilatu duen esperientzia eta duen ezagutza esparru honetan, kooperatibek jo dezaten bertara laguntza eske. OCBk aholkularitza eskaintzen du, kooperatibak bertan afiliatzearen truke.

Azpimarragarria da, eskatzen diren tramiteak bete ahal izateko zailtasun handiak dituztela enpresa errekuperatuetako eta ekimen solidarioko langileek. Formazio eta praktika faltak eragozten die ongi betetzea tramitazio administratiboa; tramiteak, gainera, ugariak izateaz gain, garestiak dira.

2.9. Kooperatiben ordezkartza ofiziala eta «elkartzeko askatasuna»

Brasilgo Konstituzioa (1988) aldarrikatu zenenean elkartzeko askatasuna onartu zen: askatasunez elkartzeko edo ez elkartzeko eskubidea, alegia. OCBn

afiliatzea derrigorra zen ordura arte, eta Konstituzio berriarekin batera elkartzeko askatasuna onartu zenean, iraungi egin zen juridikoki ordura arteko derrigortasuna: OCBn derrigorrez afiliatu beharra ordutik legez kontrakoa da.

Kooperatiben afiliazio-askatasuna errebindikatzen dugu. EAEko ereduari jarraituz, irizpide sektorialetan oinarritutako antolakundeak sortzea izan daiteke aterabidea. OCBren ibilbide historikoa eta egungo errealitatea kontuan hartzen baditugu, baita bete dituen funtzioak ere, garbi ikus daiteke kalte egiten diola kooperatibismo brasildarrari egitura dagoenetan mantentzeak eta honek dituen funtzioak betetzen jarraitzeak. Brasilgo Konstituzioan onartzen den elkartzeko askatasuna kooperatiben esparruan ere aplikatzea eskatzen dugu. Izan ere, Brasilgo kooperatibismoa sendotzeko proposatzen duguna Federazioen bidez gauzatutako organizazio sektoriala da.

Orain arte OCBk bete dituen funtzioak mantentzeak honako ondorio negatibo hauek izan ditzake:

- *Gaurdaino kooperatibismoak izan duen ibilbideak gehiegi baldintzatu dezake etorkizuneko kooperatibismoa.* Orain arte OCBk izan duen paperak ez du tarterik uzten kooperatibismo aske eta independentea sortzeko eta garatzeko.
- *Agerian geratu da elkarrizketetan OCBk oro har ez dituela defendatu kooperatibismoaren interesak;* defendatu ditu soilik eta eskusiboki bere afiliatuen interesak. Kooperatibak euren erakundean afilia daitezten erabili izan ditu eta oraindik ere erabiltzen ditu lege-irizpiderik gabeko estrategiak.
- *OCBren diskurtsoa ESaren aurkakoa da.* Organizazioko ordezkariak ez dute ekimen solidarioko enpresek formula kooperatiboa erabiltzerik nahi. Ekimen hauek elkarte edo sozietate sinplearen formula erabiltzea defendatzen dute.
- *OCB izan da bazkideen eta soldatapeko langileen lan-erregimen eza gehien baliatu duen egitura.* OCBk berak jarri ditu produkzio-kooperatibak kapital-enpresen zerbitzura, eta, horrekin, kapital-enpresek errentagarritasun ekonomikoa irabazten lagundu dute. Inoren konturako langileen kontratazioa sustatu beharrean kooperatibetan bazkideak egitea bultzatu dute.

Esan berri dugun horregatik guztiagatik, OCB ez da Brasilgo kooperatibismoa ofizialki ordezkatzeko egitura egokiena eta sektoreka antolatutako federazioak dira ordezkartza hori hartu beharko luketenak.

Kooperatiben ordezkartza ofizial bakarraren inguruan, ESaren ikuspegitik argi geratu da premiazkoa dela ordezkartza bakarraren eredia haustea. UFPRko ikasleen ustez ere, OCBko kooperatibak ez dira benetako kooperatibak, ez baitituzte betetzen printzipio kooperatiboak. Argi adierazi dute beste hainbat erakunde betetzen dituztela printzipioak eta erakunde horiek ere sartu beharko liratekeela kooperatiben mapan.

Beraz, OCB da bere izaera eta funtzioak mantentzearen alde egiten duen erakunde bakarra. SENAESko Paul Singer eta Favio Sanchez-ek azpimarratu dutenez, OCB diktadura garaian sortu zen, organismo publiko gisa sortu ere. Baina Brasilgo Konstituzioaren onarpenaz geroztik, elkartzeko askatasuna

existitzen da, eta, SENAESko partaideen aburuz, askatasun horri esker orain arteko egoera zeharo irauli beharko litzateke. Amaitzeko, azpimarratu beharra daukagu instantzia politikoetatik eskatzen dela ES osoa ordezkaturako duen instituzio bakarra sortzea. Erakunde hori ez izateak kooperatiben elkarrizketarako gaitasuna ahultzen du.

2.10. SESCOOP eta formazio kooperatiborako laguntzak

SESCOOP (Servico Nacional de Aprendizagem do Cooperativismo) erakundea 1988an sortu zen, 1.715 zenbakia daraman Medida Provisóriaren bitartez. Erakunde horretako zuzendaritza honako hauek osatzen dute: ministerio batzuetako hainbat ordezkari, OCBko bost kidek eta langileen ordezkari batek. OCBri dagokio SESCOOPeko lehendakaritza.

Medida Provisória horrek derrigorrezko ekarpena egitea ekarri zuen kooperatibagintzan, eta kooperatibek 1999an onartu zuten. Arau horretan oinarrituz, kooperatibek langileei ordaintzen dieten zenbatekoaren % 2,5 ordaindu behar dute SESCOOPen. Neurri horrek indarrean jarraitzen du, nahiz eta behin-behineko izaeraz izan. Egun, Auzitegi Federal Gorena tramititzen ari da inkonstituzionaltasuneko helegitea, eta nahikoa oinarri juridiko dauzka auzitan jarri ahal izateko SESCOOPen konstituzionaltasuna.

Kooperatiba guztiek altxor publikora ekarpena egiten dute eta handik SESCOOPera bideratzen da. Ondorioz, soilik OCBn afiliatuta dauden kooperatibek jasotzen dute subentzio horren onura. Gure proposamena da sistema aldatzea, eta EAEko sistema erreferente izan daitekeela deritzogu. Gure kooperatibek Kooperatiben Konfederaziotik eta Kooperatiben Goren Kontseilutik jasotzen dute formaziorako laguntza eta laguntzaren banaketa-irizpidea aurkeztu diren proiektuen arabera da.

2.11. Ondorioak

Ondoren, azterketaren ondorioak azalduko ditugu. Aldeko eta kontrako iritziak jaso ditugu kooperatiba eratzeke eskatu beharreko gutxieneko kapitalaren inguruan eta gu gutxieneko kapital soziala eskatzearen aldekoak gara. Bi arrazoi daude gutxieneko kapital soziala eskatzeko: batetik, oinarri bat ematen dio ekimenari, eta, bestetik, bazkideak kooperatibarekin duen edo izan beharko lukeen lotura eta inplikazioa estutzen edo indartzen du. Hala ere, gutxieneko kapitala eskatzeak politika publiko egokiaren babesa beharko luke, eta horrek ahalbidetuko luke interes baxuko maileguak eskuragarri izatea

Gutxieneko bazkide kopuruari dagokionez, berriz, kopuru baxua eskatzea proposatzen dugu (bost edo zazpi lagun). Hogeitaz bazkide eskatzea gehiegizkoa da, eta, gure aburuz, kooperatiben eraketari eragozpenak ezartzeko modua.

Bazkide motei dagokienez, legeak bazkide laguntzailearen eta bazkide erabilitzailearen figurak jasotzeak kooperatibismoa indartzen lagun dezake, elkarrizketuen beldurrak gainditu daitezkeela deritzogu eta bazkide mota bakoitzarekin esperimintatzeak konfiantza indartu dezake. Kanpoko esku-hartzeen beldur diren arren, bazkide mota berriek kooperatiben arteko elkarlana sendotzen lagun dezakete.

Kooperatiba moten ganean haxe esan behar da: nahiz eta elkarrizketatuen artean iritzi kritikoa nagusi izan den bitariko kooperatibaren ganean, kooperatiba mota hori legedi brasildarrean sartzea egokia litzateke. Kooperatibismoak duen esentziaren zati bat galtzen den arren, baditu alderdi positiboak ere: finantzatzeko bideak, erabakitzeko ahalmena, eta, sareak sortuz, kooperatiben arteko harremanak sendotzeko aukera. Kooperatiba mota horretan akzioek zati bat hartzen dute, hala ere, kooperatibaren esku egon behar du zati nagusiak.

Brasilgo legedian ekintza kooperatiboa da kontabilitate-erregimenaren eta erregimen fiskalaren ardatza eta arrazoi horregatik oso sistema konplexua da. Ardatza ekintza kooperatiboa izan beharrean, sozietate-izaera bera izan beharko litzateke erregimenaren oinarriak ezartzeko irizpidea. Erregimen fiskala sinplifikatzea eta sozietateak berak —sozietate kooperatibo izaera izateagatik— zergak ordaintzea, eskakizun formalak behar bezala betetzea erraztuko luke.

Aurrekoarekin erlazio estuan daude kooperatibek burutu behar dituzten tramite administratiboak. Administrazio-tramiteak garestiak eta konplexuak direla adierazi dute elkarrizketatuek. Bai kostuek bai tramiteen zailtasunek kooperatibismoaren garapena eragozten dute. Beharrezkoa da kooperatibentzako soilik izango den erregistroa sortzea, izaera publikoa izango duena eta kooperatiben eraketa eta funtzionamenduan lagunduko duena.

Kooperatiben ordezkaritza dela-eta, Konstituzio Federala onartu zenetik, beharrezkoa da OCB birdefinitzea. Erakunde horrek ezin du jarraitu betetzen historikoki bete duen papera. Erregistro publikoa sortu behar da eta OCBk polizia-funtzioak betetzeari utzi behar dio. Bere afiliatuen interesak defendatzen jarraitu behar du, betiere, askatasun osoz eta borondatez afiliatu diren kooperatibenak.

Azkenik, eta formazioak daukan garrantzia kontuan izanda, SESCOOP sistema auzitan jarri behar da. Finantzaketa publikoan oinarritutako sistema beharko litzateke formaziorako, irizpide objektiboz eta zuzentasunez funtzionatuko lukeena. Mugimendu kooperatibo osoa kontuan izango duen sistema behar da. Egun, kooperatiba izena gaizki erabiltzen duten sozietate motak edo «pseudo-kooperatibak» «kuasi-kooperatibak» dira formaziorako laguntzen onura jasotzen dutenak, eta laguntzetatik kanpo geratzen dira kooperatiba ahulenak eta behar gehien dutenak.

3. Instituzio kooperatiboen alderaketa

3.1. OCB euskal erakunde kooperatiboen ikuspegitik

Euskal Erkidego Autonomoan, egun, Kooperatiben Erregistroak, Euskadiko Kooperatiben Konfederazioak eta Euskadiko Goren Kontseiluak betetzen dituzten funtzioak OCBk betetzen ditu Brasilen.

Hurrengo paragrafoetan estatuak kooperatiben ganean izan beharreko harremanaren gaineko atala azalduko dugu lehenengo. Horrekin harreman estuan, Nazioarteko Aliantza Kooperatiboaren printzipioen baitan aztertuko dugu OCB. Eta azkenik, OCBn bakarrik zentratuko gara.

3.1. Estatuaren eragina kooperatibismoan

Legediak eman dien trataera dela-eta, Brasilen, kooperatibak egoera irregularraren egon dira eta daude legediari eta sailkapenari dagokienez. Merkataritza Kodea eta Elkarteen Legea ez dira lege-marko egokiak kooperatibismoarentzat. Kooperatibak bi erpinen artean mugitu izan dira lege-tratamendua argia ez izateagatik. Mugitu eta kokatu izan dira irabazi-asmoa duten sozietateen eta irabazi-asmorik ez duten elkarteen artean. Aterabide bakarra dauka egoera irregular horrek: kooperatiben izaera bikoitza kontuan hartuko lukeen lege berezi eta propioa onartzea, Elkarteen Legetik eta Merkataritza Kodetik bereizten dena.

Bada kooperatiben beste ikuskera bat duenik ere. Askok bitarteko tresna gisa bizi dute kooperatibismoa; patronala erditik kentzeko sozietate forma da, askorentzat. Kooperatibak lan-erregimenak jasotzen dituen lan-arauak eta eskubide sozialak ekiditeko aukera eskaintzen du, eta hori izan da Brasilen eman zaion erabilera (Mauad, 2001).

Nabarmenak dira lankidetzan aritzen diren enpresen onurak eta normala da babes-neurriak aktibatzea. Hala ere, kooperatibek jasotzen dituzten kredituak ez dira dohaintzak eta ezin dira erabili administrazio kaskarraren ondorioz eragindako zuloak estaltzeko. Aktibitatea hastera doazenen ekimenetarako beharrezkoak dira aipatzen ari garen kredituak edo maileguak.

Ventosak (1992: 20) laburbiltzen ditu ideiak egoki:

- Kooperatiben izaera bikoitza da: batetik, izaera soziala daukate, eta, bestetik, izaera ekonomikoa. Ezin dira kokatu ez Merkataritza Kodean ez eta Elkarteen Legean ere. Benetako lorpena izango da bitasun hori jasotzen duen Kooperatiben Legea, bi egituren artean dagoen sozietate formari erreparatzen baitio.
- Kooperatibei jarduteko askatasuna bermatu behar die legeak, baina, aldi berean, hainbat printzipio komun ere errespetatuko dituztela jasoko du. Esateko baterako, Rochdale-ko Printzipioak, —Nazioarteko Aliantza Kooperatiboko Kongresuak zehaztu, garatu eta gaurkotu zituenak— beteko dituztela bermatu behar du legeak.
- Legea beteko dela bermatzeko, ez da beharrezkoa interbentzionismoa. Legea betetzeko, zaintza behar da eta kultura kooperatiboan adituak diren figurak behar dira, kooperatibismoaren espezifikotasunari erantzuten jakingo dutenak.
- Kooperatibek aurrera egin behar dute euren kabuz, inolako pribilegio edo monopolio barik. Estatuaren laguntzak iragankorra eta momentu bakoitzera egokitua izan behar du. Laguntza eta asistentzia orok itzuli beharreko mailegu-izaera edukiko du.
- Lankidetzarako formazioa da estatuak eskain dezaketen laguntzarik onena, eta Administrazioari dagokio formazio horren kudeaketarako laguntzak eskaintzea. Lankidetzan jarduteak dituen abantailak kontuan hartu behar dira, bai enpresa-eredu egokia sustatzeko bai eta horrek gizartean sor ditzakeen onurak aintzat hartzeko ere.

- Lege kooperatibo bat garatu behar den bakoitzean ezin da ahaztu sistema ekonomikoa ez ezik, arau morala ere badela kooperazioa.

Estatuek kooperatibismoaren inguruan hartzen dituzten posizioak hiru norabidetan definitu zituen Laneko Nazioarteko Erakundeak (LANE):

- Estilo liberala. Estatuak babes orekatua, eta,aldi berean, kapital-enpresekin lehia askea egiteko aukera eskaintzen ditu.
- Estatuaren interbentzio planifikatua. Estatu hauetan kooperatibismoa garapen sozial eta teknikorako tresna moduan erabiltzen da. Are gehiago, garapen ekonomikorako tresna orokorra izango da.
- Estilo totalitario-sozialista. Estatuak kooperatibismoa kokatzen du bere ekonomia zentralizatuaren parte moduan.

Estatuak bi funtzio nagusi ditu kooperatiben gainean, gainbegiratzea eta sustapena. Harreman estua eta oreka zaila duten funtzio bi dira; bi funtzio horien bidez lortu behar da kooperatibei beharrezko duten babesa eskaintzea eta bete behar dituzten baldintzen kontrola eramatea.

Gainbegiratze terminoari Ventosak (1992: 23) honako esanahia ematen dio: «Legea eta erregelamendua betetzen direla bermatzeko, kooperatiben eraketatik hasi eta desagitera bitartean estatuko erakundeek burutzen dituzten ekintzen multzoa da gainbegiratzea». Funtzio honek beste izen batzuk hartzen ditu; honako hauek dira: zaintza, fiskalizazio publikoa eta interbentzio administratiboa. Kooperatibek izaera juridikoa daukate eta, ondorioz, eskubide-subjektu dira. Kooperatibek berau osatzen duten kideengandik berezia den pertsonalitate juridikoa daukate. Hirugarrenekin operazioak burutzeko gaitasuna dute eta kooperatibako ondarearen gaineko erantzukizun mugatua. Zaintza, —edo gainbegiratzea deitu duguna— baldintza hauek betetzen direla kontrolatzea da.

Kooperatibarekin kontratatzen duten hirugarrenen interesak babestea du helburu gainbegiratzeak, baita bazkideen eta gizarte osoaren interesak babestea ere (Cracogna, 2003). Helburu horretaz gain, kooperatiba izenaren erabilera soilik merezi duten egiturek erabiliko dutela bermatzea ere badagokio. Azkenik, elkartzeko edo biltzeko eskubidea ere babesten du.

Garapen-bidean dauden estatuek kooperatibetan betetzen dituzten funtzioak sustapen eta gainbegiratze kontzeptuen artean mugitzen dira. Herrialde horietan kooperatibek kontsiderazio berezia izaten dute, garapen sozial eta ekonomikorako tresna lagungarriak izan daitezkeelako.

Manchesterren² printzipio espezifiko berri bat onartu zen, 1995ean (Charterina, 1995): autonomia eta independentzia printzipioak onartu ziren, albo batera laga barik elkartzeko askatasuna eta borondatezko elkartze-printzipioak. Nahiz eta

2. Manchester, ACI 4.- «Autonomía e independencia: Las cooperativas son organizaciones autónomas de ayuda mutua, controladas por sus miembros. Si entran en acuerdos con otras organizaciones (incluyendo gobiernos) o tienen capital de fuentes externas, lo realizan en términos que aseguren el control democrático por parte de sus miembros y mantengan la autonomía de la cooperativa».

doktrinak alde zuzenetik eztabaida mahai gainean jarrita zeukan, adierazpideak Manchesterren hartuko du izaera kategorikoa eta printzipio gisa formulatuko da. Albo batera laga zuten estatuek ordura arte izandako kooperatiben sustapenerako politika tradizionala eta nahiko era bortitzean galdu zituzten kooperatibek izandako babes-neurriak, bai eta pizgarriak ere; batez ere, pizgarri fiskalak.

Nazioarteko egituretan, aldaketa esanguratsua gertatu zen estatuek kooperatibekin izan beharreko harreman motaren inguruan, eta irizpideotan oinarriturik kooperatiben autonomia absolutua errespetatzeko aholkua luzatu zen. Estatuaren esku-hartze edo parte-hartzearekin batera —gainerako egituretan gertatzen den moduan—, soilik legea betetzera muga daitezela aholkatu zen, hori baita gainerako enpresa eta elkarte motetan ere estatuak betetzen duen funtzioa. Mugimendu kooperatiboak duen autokontrol-gaitasuna errespetatzearen garrantzia azpimarratu zen.

LANEK 2002an kooperatiben sustapenerako onartutako Gomendioak³ dio neurri zehatzak hartu behar direla kooperatiben garapenerako eta kontuan hartu beharko dituztela neurriok kooperatiben autonomia eta autoeraketa bereizgarriek. Gomendio hori kontuan izanik, gainerako egiturei aplikatzen zaizkien parekoak izan beharko dute kooperatibei ezarri beharreko neurriek. Eta berebiziko garrantzia dauka Gomendio horrek, kontuan hartzen badugu, estatuek kooperatiben gainean egikaritu duten interbentzionismoa (Montolio, 1990) estatu latinoamerikarretako legedi kooperatiboek izan duten ezaugarri komuna dela.

Esan dugunaren haritik goazen ondoren Brasilgo errealitatea aztertzeraz:

A. Gainbegiratze-organismoa

Estatuei dagokie gainbegiratze-funtzioa eta gehienek dute gainbegiratzeko ardura duen organismo edo bulegoren bat. Hala ere, bereizten dira kooperatiben gainbegiratzea egiten dutenak, gainerako elkarte eta komertzioen gainbegiratzea egiten dutenengandik. Eta hemen datza Brasilgo egoera irregularraren arrazoi nagusia: Brasilen OCB da gainbegiratze-funtzioa bere gain duen egitura, baina ez da izaera publikoa duen entitatea eta ez luke bete behar gainbegiratze-funtzioa.

B. Eraketa-unea

Kasu gehienetan, gainbegiratzeko ardura duten egiturak dira halaber funtzionamendurako baimena esleitzeko eskuduntza duten egiturak. Hauek ematen dute funtzionamendu-baimena edo luzatzen diote proposamena gobernuari, honek baimena eman dezan. Brasilen Konstituzio Federalaren onarpenaz geroztik, kooperatibak Junta Komertzialetan inskribatzen dira, eta, ondoren, estatu mailako erakunde kooperatiboan erregistratzen dira. OCB da beraz, gobernuaren ordezkaritza kooperatiboan izaten jarraitzen duen egitura. Baina, behin eta berriz errepikatzen ari garen moduan, Konstituzioaren arabera, ez da legezkoa derrigorrez eskatzea OCBn inskripzioa edo afiliazioa.

3. OIT Recomendación 2002, sobre la promoción de las cooperativas.

C. Kooperatiben gainbegiratzea

Oso zabalak dira kasu gehienetan fiskalizazio-organismoek legeak eskaintzen dizkien eskuduntzak. Honakoak egiteko aukera izaten dute auditoretzak egiten dituztenean: batzarretara joateko eta batzarrak konbokatzeko aukera, likidazioak zaintzeko aukera, «kooperatiba» terminoaren erabilera okerra ekiditekoa eta legearen eta erregelamenduaren betetzea zaintzekoa. Arbitrajea gainbegiratze-funtzioa barik, gehiago da gatazka-konponketa. EAEn, Kooperatiben Goren Kontseiluak dituen funtzio apurretako bat da arbitrajea. Gainbegiratze-funtzioarekin amaitzeko, esan behar da, organo hauek zigorrak ezartzeko ahalmena ere izango dutela.

D. Baimena erretiratzea

Organo eskudunak baimena emateko eta erretiratzeko eskuduntza dauka, eta horrekin kooperatibaren desegitea eta likidazioa eragiten ditu. Hori horrela izanik, kooperatibek lege-xedapenak hausten dituztenean baimena erretiratzea organo eskudunak duen ahalmen bat da. Egiturek duten autoarauketa-tartea estuki erlazionatuta dago kooperatiben autonomiarekin. Latinoamerikar esperientziaren aldean —estatuak ez du autoarauketarako tarterik utzi—, Europako mugimendu kooperatiboak dagokion garrantzia eta lehentasuna eskaini dio autoeraketari.

Laburbilduz, gainbegiratzearen mugak —doktrinari zein printzipioei dagokienez— aldaketa garrantzitsuak izan ditu. Indartu egin da kooperatiben autonomia eta hori esplizitatu zen NAKek (Nazioarteko Aliantza Kooperatiboak) eginiko Manchesterreko Kongresuan. Bestalde, estatuak albo batera utzi dute entitate pribatuen eta kooperatiben fiskalizazioa. Nahiz eta autonomia errespetatzeak ez duen eragin estatuaren gainbegiratzea erabat desagertzea. Sustapena eta gainbegiratzea dira zaindu beharreko aspektuak, kooperatiben garapenean izan dezakeen eragina dela-eta.

Kooperatiben autonomia definitzean, berebiziko garrantzia dauka kooperatibizaera ematea erregistroak, baina ez da beharrezkoa estatuko beste organismo baten baimena, dagokion legalitate-kontrola pasata izango baitu. Erregistro-sistemak Merkataritza Erregistroek dauzkaten funtzionamendu-irizpide bereberkin funtzionatu beharko luke.

Beste aspektu garrantzitsu bat da kooperatibetako ordezkariak gainbegiratze-egituretan ordezkartzarik izan behar duten ala ez. Kontuan izanik, horien jarduera nagusia kooperatibak zigortzea eta kontrolatzea izango dela, independentziaz eta objektibotasunez aritzea eskatzen du funtzio honek. Esperientziak demostratu du komenigarria dela kooperatibek ordezkartzitza izatea, kontsultazko izaerazkoa bada ere.

Autokontrol kooperatiborako joera indarra hartzen ari da eta nazioartean bitartekariak sortzen ari dira. Horrek gaitzen ditu kooperatibak euren aldaketak egiteko, baina estatuak delegazioz esleitutako funtzioak zuzen betetzea eskatzen du. Halaber, inoiz ezingo dizkie delegazio horrek esleitu kooperatibei hainbat funtzio, santzio eta erregistro, esaterako. Horiek arlo politikoan geratu beharko dute.

Bigarren funtzioa sustapena edo promozioa da. Funtzio hori betetzeko, estatuak hainbat bide erabili ahal izango du. Londoñoren (1978: 13) esanetan, «en los países en vías de desarrollo, los estados deben utilizar el cooperativismo como agente para el cambio, y debe ser ágil y eficaz». Horrek erakusten du, garapen-bidean dauden herrialdeetan aldaketarako giltza izan daitezkeela kooperatibak —akuilu—, baina egitura arinak eta eraginkorrak izan behar dute ezinbestean. Londoñok dioenez, estatu iberoamerikarretan kooperatibismoaren lidergoa definituta dagoen botere baten esku egon beharko litzateke, estatuaren esku. Estatuak bere boterea beste egitura baten bitartez egikaritu du —egitura horrek izango du nahikoa autoritate eta botere— eta izango du sektore sozial desberdinen begirunea.

3.3. Nazioarteko Aliantza Kooperatiboa

Nazioarteko Aliantza Kooperatiboak (NAK) urteak pasatu ditu estatuaren eta mugimendu kooperatiboaren arteko harremanak aztertzen. Estatuak eta mugimendu kooperatiboak duten egungo harremanari egiten dio erreferentzia zuzena «autonomia- eta independentzia-printzipioak». NAKek onartuta dituen printzipioak zazpi dira, baina gu «autonomia- eta independentzia-printzipioan» oinarrituko gara. Printzipio horren arabera, bertako kideek era demokratikoan kudeatutako elkar laguntzeko erakundeak dira kooperatibak. Beste erakunde batzuekin akordioak burutzen dituzte (gobernuak barne) eta kanpo-iturrietatik eratorritako finantzaketa baldin badute, akordiook kideen kontrol demokratikoz kudeatzen direla bermatu beharko dute. Hori guztia kooperatibako autonomia mantentzeko egiten da.

NAKek, horrekin, herrialde desberdinen errealitatetara egokitzea lortu nahi du. Zehazki, helburu du garapen-bidean dauden herrialdeetako errealitatera egokitzea, horietan baitaude kooperatibak mehatxupean.

NAKek eginiko txostenak dio kooperatibak direla organizazio ekonomikoak eta laguntzak jaso behar dituztela. Laguntza horiek inbertsio-izaera izango dute eta ez beka- edo karitate-izaera. Aliantzak ez ditu onartzen transferentziak eta lehentasuna ematen die proiektu kooperatiboaren bideragarritasuna bermatzen duten inbertsioei. Baina horrek nazioarteko ordena ekonomiko berri bat eskatzen du. Ordena berri horrek nazioarteko merkataritza-harreman justuagoa ekarriko luke —eta ez behartsuen aurka—, guztion onura lortzea irizpide izango duena.

Gomezek (1998) aipatzen duen moduan, bai NAKek bai mugimendu kooperatiboak aspalditik daukate kooperatiben independentziaren gaineko kezka. Hau da, gobernuaren esku-hartzea mugatzeko beharraren garrantzia azpimarra-tzen dute. Kezka horren lehen adierazpenak NAKek berak bere neutraltasunaren gainean zuen kezkaekin hasi ziren. Zehatzago esateko, garapen-bidean dauden herrialdeetako gobernuen esku-hartzea mugatu beharraren gainekoa zen kezka. Herrialde horietan oso estuak izan ohi dira kooperatiben eta gobernuen arteko harremanak. Neutraltasun hitza Aliantzaren hastapenetik dagoen kontzeptua den arren, ezadostasunak daude terminoaren edukiaren eta esanahiaren inguruan. Izan ere, Basileako Kongresuaren ostean onartzen dira NAKen politikan kontzeptu berriak eta neutraltasun-printzipioarekin arazoak sortzen hasten dira. Oso

delikatua da garapen-bidean dauden herrialdeetan kooperatibek euren gobernuekin mantendu beharreko independentziaren gaia. Kooperatiben biziraupena bermatzeko, herrialde horietan saihetsezina da gobernuen esku-hartzea. Aliantzarentzat kezka-iturri izan da gai hau eta esku-hartze horren baldintza eta mugak zein izan behar diren definitzen ahalegindu da.

Zeregin garrantzitsuak dituzte garapen-bidean dauden herrialdeek kooperatibei dagokienez. Horietako bat da kooperatiben erregimen juridikoa arautzen duen legediaz arduratzea. Lankidetzan jarduteko eskubidea soilik dute gobernuaren ardurapeko erregistroen kontrolpean dauden egiturek. Gobernu gehienentzat zioa izaten da mugimendu kooperatiboa euren interesetarako erabiltzea; hala ere, badaude esperientzia positiboak. Lehia gero eta gogorragoa den garai hauetan, kooperatibek gainerako enpresen parean lehiatu ahal izateko eta kapitala lortzeko dituzten eragozpenak kontuan izanik, printzipio horrek jaso beharko lituzke aliantzen independentzia eta identitate kooperatiboa mantentzeko beharra.

Honela definituko genuke Book-en (1989: 63) autonomiaren gaineko iritzia:

- Estatuarekin, gobernuarekin eta, oro har, autoritateekin dauden harremanetan independentzia mantentzeko beharra.
- Kapitala eratzeko orduan, independentzia zaintzea.
- Gainerako erakunde politiko eta ekonomikoekin izan beharreko harremanetan, independentzia zaintzea

Ondorioz, beharrezkoa da estatuaren kultura kooperatiboan eta zuzenbide positiboan kooperatiben bideragarritasuna eta kudeaketaren gardentasuna bermatzea. Era horretan, bai kooperatibek bai bazkideek, hirugarrenen segurtasuna bermatuz jardun ahal izango dute. Brasilgo kasuari gagozkiolarik, 1988ko urriaren 5eko Konstituzioan, mugimendu kooperatiboaren autonomia onartu zen. Aldi berean, estatuaren esku-hartzea espresuki debekatu zen eta kendu egin zen kooperatibaren funtzionamendurako alde aurreko baimena eskatzeko derrigor-tasuna. Legeak — gainerako sozietateekin egiten duen moduan—, kooperatibak eratzeko beharrezko diren baldintzak zehaztuko ditu.

3.4. OCB

Ondorengo lerrootan jardungo dugu OCBri buruz, bera baita, egun, Brasilgo mugimendu kooperatiboaren ordezkartza ofiziala daukan egitura bakarra.

OCB sozietate zibila da. Izaera pribatua dauka eta, nahiz eta funtzio publikoak betetzen dituen, ez dago Administrazio Publikoaren barnean. EAEn kasuan, alde batetik Kooperatiben Erregistroa dago, Eusko Jaurlaritzan kokatua eta kooperatiben gaineko eskuduntzak dituena. Horrez gain, Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseilua dago. Lehena Administrazio Publikoko parte da eta kooperatiben legaltasuna gainbegiratzea dagokio eta, horretarako, Administrazio Publikoko parte izateak eskaintzen dituen abantailak ditu. KGKren izaera berezia duen arren, badu osagai publikoa ere, eta hain zuzen, kooperatibismoko aholku- eta kontsulta-organoa da. Azkenik, Konfederazioa aipatu behar da: kooperatibek sortu duten egitura da eta kooperatiben ordezkartza dagokio.

Brasilen OCB da funtzio horiek guztiak batera dituen erakunde pribatua. OCBren Estatutu Sozialen lehenengo artikulua dio OCB dela sistema kooperatiboaren ordezkari-organoa, erregistro-funtzioak dituen organoa eta kooperatiben kontrolaren ardura daukana. Indarrean dagoen legediaren arabera beraz, OCBren obligazioak dira sistema kooperatiboaren ordezkari-organoa, kooperatiben kontrola, eta, erregistroa eta katastroa eramatea. Brasilgo errealitatea EAEkoarekin alderatzen badugu, sistema bere osotasunean ordezkari-organoa ez duen egitura batek ezin du izan ordezkari-organoa. EAEko kasuan, Federazioa da ardura hori daukana. Erregistroa eta katastroa eramatea Erregistro Ofizialari dagokio. Brasilen OCB⁴ da kooperatibismoaren ordezkari-organoa ofiziala daukana, baina horrek zuzen egiten du talka indarrean dagoen Konstituzio⁵ Federalarekin.

Ondorioz, legea kontuan hartuta, OCBri dagozkio ordezkari- eta erregistro-funtzioak, baina Konstituzio Federala kontuan izanda, aldiz, ez da bideragarria ordezkari- eta kooperatiben batasuna egitura bakarrari esleitzea. Badago koherentzia moduko bat Kooperatiben Legearen eta OCBko Estatutu Sozialen artean: biek mezu bera ematen dute. Baina 1988an onartutako Konstituzio Federalak agerian uzten du gatazka. Ezin da delegatu funtzio hori egitura pribatu baten eskuetan. Horren oinarria estatuaren esku-hartze debekuan eta kooperatiba bat eratzeko, egitura pribatu baten baimen beharrik ez izatea da. Egun Brasilen kooperatibismoak gertu dauden egitura asko dago: ANTEAG, UNISOL, UNICAFES, CONCRAB... Baina ez dira gai izan egitura bakar eta irmo bat sortzeko.

Funtzioak zehazteko orduan, 5.764/71 zenbakidun Kooperatiben Legeari edo OCBren 105. artikuluari egin behar diogu erreferentzia. Kooperatiben Legeak OCBri kooperatibismoaren gaineko eskuduntza nagusiak esleitzen dizkio: integrazioa bultzatzea; erregistroa eramatea; aholkularitza eskaintzea; kaltegarriak izan daitezkeen ekintzak salatzea; indarrean dauden prozesuen gaineko iritzia ematea; aholku-batzorde espezializatuak sortzea; ordezkari-organoen funtzioekin erlacionatutako hainbat jardura eta antzeko helburuak dituzten elkarteek burutzen dituzten integrazio-jardueren antzekoak aurrera eramatea.

Legeak ezartzen duen beste funtzioetako bat sistema kooperatiboa ordezkari-organoa da. EAEn Konfederazioak betetzen du funtzio hori. Euskal mugimendu kooperatiboa federaziotan banatuta dago; sektore bakoitzak bere federazioa dauka eta afiliazioa askea eta borondatezkoa da. Kooperatiba gehienak dagokien federaziora afiliatuta daude, federazioak sektore bakoitzera egokitutako sustapen- eta aholkularitza-zerbitzua eskaintzen duelako. Federazio horien batzetik sortu zen Konfederazioa eta hori da kooperatiben ordezkari-organoa legitimoa.

OCBri dagokion bigarren funtzioa identitate kooperatiboa gainbegiratzea eta balio eta printzipio kooperatiboak zaintzea da. Funtzio horien barnean kokatzen da, halaber, kooperatiben identitatea zaintzea, gizartearen eta botere publikoaren

4. OCB, 105. art.: A representacao do sistema cooperativista nacional è Organizacao das Cooperativas brasileiras —OCB— sociedade cecil, com sede na Capital Federal, órgão técnico-consultivo do governo, estruturada nos termos desta lei, sem finalidade lucrativa, competindho-lhe principalmente.

5. Konstituzio Federala, XVIII.- a criacao de associacoes e, na forma de lei, a de cooperativas indepedem de autorizacao, sendo vedada a interferencia estatal em seu funcionamento.

aurrean. OCBko estatutuen arabera, berari dagokio kooperatiben identitatea, balioak eta printzipioak zaintzea eta gainbegiratzea. Baina funtzio hori oso orokorra eta abstraktua denez, arbitrariotasun handiz jokatzeko arriskua dago.

Hirugarren funtzioa eratzen diren kooperatiben erregistroa eramatea da. Brasilen, funtzio hori betetzeko, Junta Komertzialak eta *Cartorio*ak dira existitzen diren egiturak, baina OCBren ardura da, eroldatu aurreko azterketa egitea eta baldintzak betetzen dituztela bermatzea, ondoren Junta Komertzialean erregistroa egin ahal izateko. EAeko eredura ekarriz hau, garbi dago gurean dagokiola ardura hori legalitate printzipiopean diharduen erregistroari. Horrek legeak eman dion legitimitateaz dihardu. OCBri dagozkio, orobat, kooperatiben promozioa eta aholkularitza. Promozioa entitate pribatu baten esku lagatzen baldin bada, arriskua dago elkartearekin bat datozen egitura kooperatiboak bultzatzeko soilik. Gure kasuan, erantzukizun hori dute Kooperatiben Erregistroak eta, batez ere, Federazioak eta Kontseiluak.

Hurrengo eskuduntza kooperatibak talde desberdinetan klasifikatzea da. Funtzio hau erregistroak dituen funtzioekin dago erlazionatua, beraz lan hau erakunde pribatu batek egiteak ez dauka zentzurik. Beste zeregin garrantzitsu bat, kooperatibentzako aholkularitza eta bestelako zerbitzuak eskaintzea da. Gure ustez, funtzio hau egin beharko luke elkarte bakoitzak, kooperatibak libre dira, nahi duten elkarteetan afiliatzeko edo ez afiliatzeko, baina izatekotan, funtzio hau elkarte bakoitzaren esku egon beharko litzateke. Horrekin erlazionatuta dago, kooperatiben funtzionamenduaren eta egituratzearen inguruko ezagutza sortzea eta sustatzea. EAEn ezagutza zabaltzeko ardura Kooperatiben Goren Kontseiluak dauka. Funtzioekin jarraituz, OCBri esleitzen zaio baita ere, kooperatibismoaren hedapena eta sustapena egiteko ardura. Erakunde publikoen esku beharko luke funtzio horrek eta inolaz ere ez, entitate pribatu baten esku. EAEn Goren Kontseiluari dagokio. Artikulu honek OCBren esku laga du kooperatibismoaren aurkako praktiken kontra joateko aukera ere. Botere hori entitate pribatu baten esku lagatzeak zera suposatzen du, erakundeari interesatzen zaizkion kooperatiben alde eta kontra egiteko aukera izatea eta horrek praktika arbitrarioei ateak irekitzen dizkie

Egun Brasilen elkarte desberdinetara afiliatzeko aukera dago eta OCBra *de facto* afiliatzeko derrigortasuna egotea konstituzioaren kontrakoa da. Ez lituzke funtzio horiek guztiak eduki behar.

OCBk bitariko sistema kooperatiboaren defentsa egiteko ardura dauka; prozesu judizialean barna eta horietatik kanpo. Era horretan sistema kooperatiboaren defendatzaile bakar bihurtzen da. Kooperatiben Legeari hobekuntzak proposatzea eta sistema kooperatiboaren Kontseilaritzaren gobernua aurrera eramatea ere OCBri dagozkio. Euskadin prozesu hori Kontseiluaren eta Konfederazioaren esku dago. Kontseilua kontsulta- eta aholkularitza-organoa da eta Konfederazioa erresoluzioak eta irizpideak markatzen dituen egitura. Nazioarteko kargu publiko eta pribatuen izendapena ere beste funtzio garrantzitsu bat da. Horren ondorioz, OCBren iritzia dira entzuten diren bakarrak.

OCBri zerga kooperatibistaren kobrantza egitea dagokio. Era horretara kooperatibista guztiek egiten duten ordainketaren onuradun bakarria bihurtzen da. Hau ere larria da, baliabide ekonomikoak beharrezkoak direlako hainbat jarduera aurrera eraman ahal izateko, formazioa kasu. Izan ere, horrekin lortzen da baliabideak dituenaren esku kontzentratzea boterea. Azkenik, aipatu behar da OCBri dagokiola gainerako egitura kooperatiboekin izan beharreko estatuz gaindiko harremanen ardura ere, eta, ondorioz, harreman horien monopolioa ere erakundeari dagokio.

Brasilen talka egiten dute Konstituzioarekin, bai Kooperatiben Legeak bai eta OCBko Estatutu Sozialak ere.

4. Ondorioak

4.1. Ondorio orokorrak

Ikerketa-lan honen ondorio orokorrak aurkeztuko ditugu ondoren. Kontuan izan behar da, aintzat hartu direla elkarriketatu genituen protagonista eta eragile nagusien iritziak, baina ez direla lotesleak izan. Gure proposamenak oinarrituta daude Arrasateko Esperientzia arrakastatsuan eta horretan oinarritu gara ekarpenak egiteko orduan.

Hona hemen, beraz, ondorio orokorrak:

- Arrasateko Kooperatiba Esperientzia enpresa bideragarriz osatutako enpresa taldea izatera iritsi da. Kooperatiba talde irmoa sortu du eta Euskadiko errealtate kooperatiboa sendotzen lagundu du. Brasilgo errealtate kooperatiborako erreferentea izan daiteke.
- Brasilen ekonomia solidariotik eratortzen den kooperatibismoa, kooperatibismo berrirako ernamuina da eta horren balio eta printzipioak berrindartu beharrezkoak dira eta teoria kritiko latinoamerikarraren postulatuekin koherentzia dute.
- OCBk kooperatibismo tradizionalaren ordezkartza eta gainerako esku-duntzak izaten jarraitzea kooperatibismo brasildarraren garapenerako eragozpena da.
- Kooperatibismoaren titulupean jardun izan duten hainbat ekimenek ez dituzte praktikara eraman kooperatibako balioak. Brasilen kooperatibak erregimen laboralak ezarrita dituen eskubide eta obligazioei ihes egiteko erremintak izan dira.
- 4/93 Euskadiko Kooperatiben Legea AKERen garapenerako beharrezko elementua izan da eta Brasilgo errealtate kooperatiborako lagungarri izan daitezkeen ekarpenak ditu.

Hona hemen ekarpenak:

- Kooperatibak eratzeko gutxieneko bazkide eta kapital kopurua ezartzea.
- Bazkide mota berriak sartzea.

- Bitariko kooperatibaren figura sartzea.
 - Kooperatibentzako espezifikoa izango den erregistroa sortzea.
 - «Ekintza kooperatibo» terminoa zabaltzea.
 - Tramite administratiboak, fiskalak eta kontabilitatekoak erraztea.
 - SESCOOP eta formaziorako gainerako laguntzak guztien eskura jartzea.
- Egin diren proposamen legalek ez dakarte egun indarrean dagoen legearen sakoneko aldaketa.
 - Egun Brasilen diren bi errealitate kooperatiboak kaltegarriak dira kooperatibismoarentzat. Kooperatibismo tradizionalaren eta kooperatibismo sozial eta enpresa-kooperatibismoaren arteko banaketak ez du onik egiten. Kooperatibismoak Brasilen —eta denean— bat eta bakarra izan behar du.
 - OCBk bere jarduera bideratu beharko luke borondatez bazkide egin diren zerbitzura. Sortuko diren gainerako kooperatiba-erakundeekin batera kooperatiben ordezkariarako organo bat gehiago izango da. Gainera beharrezkoa da ekonomia solidarioaren barnean dauden egitura denak batuko dituen ordezkari-organoa bakarra sortzea.
 - NAKaren «autonomia eta independentzia» printzipioekin koherentzia eta OCBren sorrera eta rola kontuan hartuta, OCBk NAKen jarraitu behar duen ala ez jarri beharko litzateke auzitan.
 - OCBren funtzio eta eskuduntzak errebisatu egin beharko lirateke.

4. Bibliografia

- Arrieta, L.; Barandiaran, M.; Mujika, A.; Rodríguez Ranz, JA. (ez da urterik azaltzen): *El Movimiento Cooperativo en Euskadi, 1884-1936*, SABINO ARANA Elkargoa, Bilbo.
- Book, Sven Ake (1989): “Valores, principios e identidad cooperativas antes del cambio de siglo”, *Revista de la Cooperación Internacional*, San Pablo.
- Charterina, A. (1995): “Los valores y principios cooperativos”, *Revesco: revista de estudios cooperativos*, Madril.
- Cracogna, D. (2003): *La supervisión de las cooperativas en América Latina*, Ciriec, Espainia.
- Gediel, J. A. P. (2005): “Cooperativas Populares. A legislacao como obstáculo”, in Mello, S.L. de (ORG), *Economía Solidaria e autogestao: encontros internacionais*, PW, Sao Paulo.
- Gomez, L. eta Martinez Charterina, A. (1998): “Origen y alcance del principio de autonomía e independencia de las Cooperativas. Asociación Internacional de Derecho Cooperativo”, *Boletín de la Asociación Internacional de Derecho Cooperativo = Journal International Association of Cooperative Law*, **33**, 25-40.
- Gomez, L. (1998): *Nazioarteko Kooperatiba Aliantza, bere garapena erakunde eta gizartearen eraldatzaile gisa*, CSCE-EKKG, Gasteiz.

- Lanki, Altuna, L. (2008): *La experiencia cooperativa de Mondragon una síntesis general*, Lanki, Eskoriatza.
- Londoño, C. (1978): *El Movimiento Cooperativo y el Estado*, Intercoop, Argentina.
- Mauad, M. (2001): *Cooperativas de trabalho. Sua Relacao com o Direito do Trabalho*, Editora LTDA, Sao Paulo.
- Montolio, J.M. (1990): *Legislación cooperativa en América Latina. Situación, Derecho comparado y Proceso de armonización*, Ministerio de Trabajo y Seguridad Social, Madril.
- Pastorino, R. (1993): *Teoría General del Acto Cooperativo*, INTERCOOP, Buenos Aires.
- Krueguer, G. eta Branco de Miranda, A. (2007): *Comentários á legislacao das sociedades cooperativas*, I. lib., Ed. Mandamentos, Belo Horizonte.
- Ventosa Roig, J. (1992): *Las Cooperativas y el Estado*, Asociación de estudios cooperativos, Madril.
- Euskadiko Kooperatiben Legea.
1/2000 Kooperatiben Legearen aldaketa.
5.764 Brasilgo Kooperatiben Legea.
1/2010 EDL, kapital-sozietateei buruzkoa

